

FUTBITO TXAPELKETA ELGETAKO KANTXAN EGITEKO PROKOLUA COVID19 GAXOTASUNAREN AURREAN

Gomendio hauek finkatzeko antolakuntzako kideok honako erakunde hauek sustatutako protokolo espezifikoak hartu ditugu kontuan: Espainiako Futbol Federazioa, Liga, Espainiako Osasun Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Euskal eta Gipuzkoako Futbol Federazioa.

GOMENDIO OROKORRAK

- Higiene eta babes pertsonaleko neurriak ahalik eta gehien indartuko dira.
- Kirolariek etxean hartuko dute gorputzaren tenperatura, eta instalazioetara ez da inor etorriko bere tenperatura 37°C baino handiagoa bada. Saioa hasi aurretik bakoitzak dokumentu bat sinatuko COVID sintomarik ez duela adieraziz. Adin txikikoen kasuan gurasoek sinatu beharko dute dokumentua, baita txapelketan hartzeko baimena ematen dutela ere.
- COVID-19 sintomatologia duten kirolariak identifikatuko dira kirol jardueratik aparte gera daitezten.
- Harrera eta agurrak egokituko dira, gomendatutako distantzia fisikoari eusteko.
- Saioetan parte hartuko duten jokalariek eta prestatzaileek etxetik kirol jantziak jarrita etorri beharko dute. Pertsona guztiak instalazioetara musukoa jantzita etorriko dira eta **bakoitzak bere ur botila ekarri beharko du**.
 - a. Jokatzeko itzaroten daudenak eta partida ikusten daudenak musukoa jarrita izango dute eta segurtasun distantzia mantendu beharko dute.

- b. Jokalariek maskara kendu ahal izango dute zeregin fisikoak egiten dituzten bitartean.
- c. Gradak taldeka antolatuko dira. Talde bakoitzak bere espazioa izango du. Soberan dagoen espazioa ikusleek erabili ahal izango dute.
- Eskuen higieua sustatuko da. Horretarako, gel hidroalkoholkoa parte-hartzaileen eskura jarriko da.
 - Aldagelak ezingo dira erabili.
 - Elementu osagarri guztiek norberaren erabilerakoak izan behar dute (eskuoihalak, botak, botilatxoak, poltsak ...). Parte-hartzailearen batek elementu partekaturen bat erabili edota ukitzen badu, behar bezala jakinarazi eta desinfektatuko da.
 - Arnas higieua sustatuko da; horrela, ez tul edo doministiku egiten denean, besoa erabiliko da ahoa estaltzeko.
 - Ahozko komunikaziorako segurtasun-distantzia 2 metro ingurukoa izango da uneoro.
 - Bi partiduren artean, behar den material guztia desinfektatu egingo da, zehazki baloiak eta porteriak.

ELGETAKO 2020. URTEKO FUTBITO TXAPELKETAKO JOKALARI, LAGUNTZAILE ETA ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO KIDEAK SAIATU ETA ARDURATUKO DIRA JARDUERA-PROZEDURA ETA PROTOKOLO HAU BEHAR DEN BEZALA BETETZEN.

Anexoak

COVID-19 ari aurre egiteko jorraturiko distribuzioaren planifikazioa:



- Kantxa. Aldiko 10 jokalariak eta epailea egon ahal izango dira.
- Gradak: Talde bakoitzak bere gunea edukiko du. Tokia sobratuko balitz, ikusleak jarri ahal izango dira.
- Kantxaren ingurua: Publikoarentzako tokia.